

Txertaketa-egutegiako gomendioak

Txertaketa-egutegiari dagokionez, honako informazio hau emango dizuegu.

Egun, Espainian, txertaketa ez da legez derrigorrezkoa. Informazio hau oso argi izan behar dute eskolatzeko adinean dauden umeen gurasoek.

Umea txertatuta dagoela eta zein txerto hartu dituen baino ez ditu frogatzen txertaketa-agiriak. Ez gehiagorik, ez gutxiagorik.

Txertaketa-agiria eguneratuta egotea eskatzen ahal digute, baina horrek ez du esan nahi umeak txertatuta egon behar duela. Besterik gabe. Honetaz gain, gurasoak hertsatzeko tresna izan daiteke agiri hori, seme-alabak txertatuta ez egoteagatik irregulartasunen bat egiten ari direla pentsarazten ahal baitie eskolak edo beste norbaitek.

Egun, legeak dioenez, txertaketa-agiria hutsik egotea (hau da, txertaketen erreferentziarik ez agertzea) ez da umea eskolatu gabe uzteko motiboa. Beste modu batean esanda, ezin da ume bat matrikulatu gabe edo klasera joan gabe utzi txertaketa-agiria huts egoteagatik.

Beste gauza bat da zer egingo duen eskola bakoitzak. Alegia, posible da zentro batek eskolatzeko oztopoak jartzea edo gurasoak hertsatzea seme-alabak txerta ditzaten. Hori gertatzekotan, gurasoek indarra, ausardia eta egoera aproposa izan beharko dituzte presioari aurre egiteko. Hori ez da batere erraza, dudarik gabe.

Azkenik, txertaketa-egutegia hutsik edukitzeagatik (hau da, txertatuta ez egoteagatik) umea eskolatu gabe geratuko balitz edo eskolak umeari klasera joaten utziko ez balio, zaila izango litzateke arazoa konpontzea.

Lehenik, gurasoek eskolari agiri bat eskatu beharko diote eta lortu egin beharko dute. Agiri horretan eskolak baieztatu beharko du umeak txertoa ez jasotzearen ez dituela eskolatu nahi edo ez diela klasera joaten uzten. Gainera, eskolak azaldu beharko du zein legetan oinarritzen den erabaki hori.

Oso inportantea da gurasoak ez kikiltzea. Eskola umea kanpoan uzten tematzen bada, gurasoek erabaki beharko dute ea epaitegietara joko duten edo ez. Txertaketa falta dela-eta eskolak umea onartu nahi ez badu, epaitegiek arrazoia emango diete aita-amei, argi eta garbi. Baina Covid-19ak dena aldatu duenez, ezin dugu %100ean bermatu zein izango den epaitegien azken erabakia. Epaileak ere gizakiak dira eta batzuetan beldurrak daude, txertoetan sinisten dute eta gainera gizartearen presioa sufritzen dute horrelako gatazkak sortzen direnean.

Azkenik, gurasoek umeak txertatzea nahi ez badituzte, pediatraren edo medikuaren ziurtagiri bat lortzea garrantzitsua litzateke. Agiri horrek umeak osasun ona duela, txertaketa-agirian dauden gaixotasunak pasatu dituela eta, beraz, modu naturalean immunizatu dela konfirmatu beharko du.